



Tradizioaren traizioaz?

Eka. 28 - Eka. 29 2023

Kod. K07-23

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2023

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Eka. 28 - Eka. 29 2023

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea



Fundación
BBVA



Azalpena

Gure tradizioak Euskal Herriaren nortasunaren isla dira. Dantza, musika, bertsolaritza, margolaritza, literatura, antzerkia, pastoralak,... gure nortasunaren emozioak plazaratzeko eta komunikatzeko funtsezko elementuak dira. Gainera, jarduera horiek gizartearen kohesiorako ere guztiz beharrezkoak dira.

Edozein arlotan, sarritan entzuten dugu tradizioan ongi finkatutako gizarte garaikide bat garela. Baina, euskal kultur jardueran ere den dena aldatzen da eta aldatzea ez da arrotza izan behar, gaurko berrikuntzak izango baitira etorkizun hurbileko tradizioak.

Tradizioa eta garaikidetasuna, iragana eta etorkizuna, tradizioa eta sorkuntza... uztartzen ditugula. Baina horrek tentsioak, zalantzak eta eztabaidak ere badakarzkigu. Galdera asko sortzen dira eta askotan eztabaida beroak hainbat arlotan. Noiz itxuraldatzen dugu gure tradizioa, noiz egiten dugu garapen bat, noiz traizioa...? Nola eragiten dio horrek gure identitateari? Ze euskal identitate eraiki nahi dugu etorkizunari begira? Nola egin dezakegu hori? Nola eragiten dio euskal kulturari digitalizazioak?

Kultur jarduera ezberdinetako artista, aditu eta ikertzaileekin aztertuko dugu tradizioa eta sorkuntza garaikidearen arteko harreman hau. Dantza, musika edota bertsolaritza gisako jarduerak ardatz hartuta, Euskal Herriko zein kanpoko adituek izango dute gaia aztergai.

Helburuak

Tradizioa eta garaikidetasunaren arteko harremanari buruz azterketa egitea dantzan, bertsolaritzan, musikan,...

Sormenak, berrikuntzak sortzen duen tradizioaren traizioaz azterketa egitea.

Tradizioaren itxuraldatzeak sortzen duen eragina nortasunean.

Digitalizazioak euskal kulturaren sortzen duen eragina aztertzea.

Kultur arloan tradizioan oinarritutako berrikuntza egiteko prozesuen azterketa egitea.

Kultur adierazpideen garapenak herri izaera batean duen eragina aztertzea

Kultur arloan tradizioan oinarritutako berrikuntza egiteko prozesuen azterketa egitea.

Lankidetzak



Programa

2023-06-28

08:45 - 09:00	Erregistroa
09:00 - 09:30	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Junkal Gutierrez Mangado UPV/EHU - Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordea Jon Maya Sein Dantzaria eta koreografoa Iñaki Goirizelaia Ordorika UPV/EHU - Irakasle katedraduna
09:30 - 10:30	“Jarraidura, irekidura, eta azelerazioa (Herri baten etorkizunerako kultur tradizioaren balioa)” Jon Sarasua Maritxalar MU
10:30 - 11:00	Atsedena
11:00 - 12:00	Mahai ingurua: “Euskal dantza tradizioaetik sorkuntzara” Iñaki Goirizelaia Ordorika Kontseilua - -- (Moderatzailea) Jon Maya Sein Dantzaria eta koreografoa Amagoia Elozegi Diaz Oier Araolaza Arrieta
12:00 - 13:00	“Tradizioaren traizioaz?” Xabier Erkizia Martikorena --
16:00 - 17:00	“Tradizioaren itxuraldatzeak herrien nortasunean sortzen duen eragina” Idurre Eskisabel Larrañaga UPV/EHU - Irakasle katedraduna
17:00 - 17:20	“Bertsolaritzaren berrikuntzaz” Joxerra Garzia ...
17:20 - 18:00	Mahai ingurua: Mahai ingurua Xabier Payá Ruíz Itzultzailea Maialen Akizu Bidegain Lizarazu Bertsolaria Kepa Matxain Iztueta UPV/EHU

2023-06-29

09:00 - 09:45	“Berrikuntzaren eta digitalizazioaren eragina euskal kulturaren eta nortasunaren bilakaeran” Kirmen Uribe
09:45 - 10:05	“ Euskal musikak existitzen du? “ Ion Celestino Manterola Musikaria

10:05 - 10:45	Mahai ingurua: Mahai ingurua Roberto Ordorika Ezkurdia Joseba Tapia ... Gaizka Insurza
10:45 - 11:15	Atsedena
11:15 - 11:45	“Euskal musikaren eraldaketa emakumeen eskutik: Lourdes Iriondotik gaur arte” Maite Larburu Miren Narbaiza Martiartu Mice
11:45 - 12:30	“Herri baten etorkizunerako kultur berrikuntzaren balioa” Irene Larraza Aizpurua Etxepare institutua - --
12:30 - 13:00	“ Itxiera ekitaldia: Tradiziotik Sorkuntzara zuzeneko performancea ”Itxiera Eva Ferreira Garcia UPV/EHU - Rectora
13:00 - 14:00	Tradiziotik Sorkuntzara zuzeneko performancea

Zuzendaritza



Iñaki Goirizelaia Ordorika

UPV/EHU, Ingeniería de Comunicaciones

Ingeniaritza Telematikokoan katedraduna da UPV/EHU. Errektorea izan zen (2009-2017), eta lehenago, Unibertsitate-Enpresako errektoreordea (1998-2000), Akademia Antolakuntza arloaren errektoreordea (2004) eta Bizkaiko Campuseko errektoreordea (2005-2008). 1984an eta 1985ean Visiting Fellow Kaliforniako Stanford Research Institutuan (SRI). 2004an sei hilabetez irakasle bisitari Massachusetts-eko Institutu Teknologikoko MediaLab laborategian. 2017an, Boise State University-ko (BSU) Eloise Garmendia Bieter katedraz jabetu zen. Bere ikerketa-ibilbidean hiru lerro hauek landu ditu: adimen artifiziala, ikusmen artifiziala eta telekomunikazio-sareetako segurtasuna. Orain ingeniarietza telematikokoaren arloko I2T ikertaldeko kidea da. 1999an “Programazioaren oinarriak” testuliburuaren egilea da, eta 2021ean “Sareetan zehar dantzan Java erabiliz” liburuaren egilekidea. Bestalde, diasporako euskal balioei buruzko hausnarketa gauzatzen duen “Bai, bagara!” dokumentalaren sortzailea eta gidogilea da, eta dantzari buruzko “Lur hau gurea” dokumentalaren sortzailea. Gaur egun, PuntuEus fundazioaren presidentea eta sortzaileetako bat da, eta Jakiunde izeneko zientzia, arte eta letren akademiako ohorezko jakituna da.



Jon Maya Sein

KUKAI KULTUR ELKARTEA, ZUZENDARIA eta DANTZARIA

Kukai Dantzako zuzendari, dantzari eta koreografoa. Sei urte zituela abiatu zen dantza munduan, Errenteriako Ereintza Dantza Taldean. Nazioarteko folklore jaialdi ugaritan hartu zuen parte eta Euskal Herriko Aurrekulari txapelduna izan zen 1997 eta 2005. urteen artean. Laxok taldean jardun ostean, 2002. urtean Kukai Dantza proiektua sortu zuen tradizioetik abiatutako sorkuntza sustatzen zuten ikuskizunak landu asmoz. Kukai Dantzaren baitan garatu du bere ibilbide profesional nagusia, dantzari, koreografo eta zuzendari gisa. Lengoaia artistikoen uztarketa eta lankidetzan jarduteko gaitasuna ditu ikur nagusi. Norabide horretan koreografo eta artista ugarirekin jarduten du elkarlanean: Marcos Morau, Sharon Fridman, Israel Galván, Cesc Gelabert, Andoni Luis Aduriz, Tanttaka Teatroa, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa... Hainbat proiektutako zuzendari artistiko gisa egin du lan (Donostiako Zinemaldia, Max Sariak..), baita ekimen berezitako dantza arduradun gisa eta antzerki proiektuetan mugimendurako laguntzaile eta irakasle gisa ere. Kritika espezializatuak definitu duen bezala: “azken urteetako koreografo-zuzendari ezinbesteko eta polifazetikoa da”.

Irakasleak



Oier Araolaza Arrieta

Oier Araolaza Arrieta (Elgoibar, 1972) dantzaria da. Eibarko Kezka eta Donostiako Argia dantzari taldeetan aritzen da. Urbeltzen zuzendaritzapean Argiaren Alakiketan (1991), Kondharian (1997), Axuri Beltza (2008) eta Martin Zalakain (2017) ikuskizunetan aritu da dantzari. Dantzan.eus webgunearen sortzailea eta editorea da. Informazio Zientzietan (EHU, 1995) eta Gizarte eta Kultura Antropologian lizentziatua (EHU, 2000), Musikologian egin du masterra (EHU, 2008), Artearen Historian Ikasketa Aurreratuen Agiria (EHU, 2010), eta doktore tesia Gizarte Komunikazioan (EHU, 2020) euskal dantza eta generoa ikertuz Mikel Laboa katedraren babesean. Euskal dantza irakasle izan da Dantzertin (2017) eta EHUn Euskal Dantzari buruzko ikasketetan (2016-2017). Euskal dantzaz hainbat artikulu idatzi ditu Argia, Berria eta Dantzan-en, eta hiru liburu argitaratu ditu: Gregorio Santa Cruz dantza-maisua (Ego-Ibarra, 1998), Euskal Dantza (Etxepare, 2012) eta Genero-identitatea euskal dantza tradizionalaren eraikuntzan (UEU, 2020). 2012tik Eusko Jaurlaritzaren Kulturaren Euskal Kontseiluko kidea da.



Maialen Akizu Bidegain Lizarazu

- Maialen Akizu Bidegain (Urretxu, 1996). Soziologoa da ikasketaz. Horrez gain, Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondokoa (Mondragon Unibertsitatean) eta Subiranotasuna Europako Herrietan masterra (EHUn) ditu eginak. Master Amaierako Lana bertsolaritza eta zaintzaren ekonomiaren ingurukoa izan zen. Gaur egun, doktoretza egiten ari da Euskal Herriko Unibertsitateko AFIT ikerketataldean. Kulturgintza eta feminismoa ditu iker-lerro nagusi. Eusko Ikaskuntzako “Kultur politikak” lantaldeko zuzendari zientifiko da eta Jakin Aldizkarian ere kolaboratzen du, besteak beste.



Ion Celestino Manterola




Amagoia Elozegi Diaz



Xabier Erkizia Martikorena

Soinu artista, ikerlari independentea, ekoizle artistikoa, kuradorea eta entzulea. Azken 30 urteotan alor anitzetan lan egin du entzumenaren eta soinu inguruetarekin zerikusia duten egitasmotan. Musikaren arloan, bakarkako lanak nahiz kolaboratzaile zerrenda luzearekin egin du lan, nagusiki rock esperimentala, inprobisazio askea edo musika elektronikoa bezalako estiloak jorratuz. Zinemaren eta arte eszenikoen munduan soinu diseinatzaile lanak bete ditu 100 film eta ikuskizun baino gehiagotan, haietako batzuegatik sariak jasoz. 2021ean O GEMER bere film luzea estreinatu zuen. Bere soinu instalazioak eta bestelako lanak hainbat nazioarteko jaialdi, kultur zentru eta museotan erakusten dira. Kuradore gisara, ERTZ Bertze Musiken jaialdiaren zuzendari izan da (1999-2017), Arteleku arte garaikideko ekoizpen zentruaren soinu departamentua (2002-2014) zuzendu zuen eta bestelako ekitaldi, ziklo eta erakusketetan komisario lanak bete ditu internazionalki. Hainbat komunikabidekin lan egiten du, bereziki musikari eta entzumenaren kulturari eskainitako irratirako lanak eta iritzi artikulatuak idatziz. AUDIOLAB elkarteko kide da. Hezkuntzaren arloan ere aritzen da, EQZE zine eskolan eta puntualki hainbat hezkuntza zentro eta unibertsitatekin elkarl



Idurre Eskisabel Larrañaga

UPV/EHU, Irakaslea

Kazetaritza eta Gizarte eta Kultur Antropologian lizentziaduna. 'Euskaldunon Egunkaria'-n eta 'Berria'-n urte luzez aritua, egun irakasle EHUko Kazetaritza II Sailean. Medioek nazioekin eta sexu-genero sistemarekin duten uztardura eta soziolinguistika ditu ikergai. Hainbat mediotan kolaboratu du; egun, Euskadi Irratian eta Radio Euskadin aritzen da. 2019an 'Trikua esnatu da' saiakera liburua argitaratu zuen Lorea Agirre Dorronsorekin batera. Literatur arloan 'Goseak janak' poemategia argitaratu zuen 2018an.



Eva Ferreira Garcia

UPV/EHU

Eva Ferreira, gaur egun EHUKo Errektorea. Unibasq-eko (euskal unibertsitate-sistemaren kalitatea ebaluatzeko agentzia) zuzendaria izan da, eta EHUKo Ekonomia eta Enpresa Fakultatean katedraduna da. Matematikan lizentziatua eta Ekonomian doktorea da UPV/EHUn eta Probabilitate eta Estatistikan masterra egin du Courant Institutuan New York Universityn. Ikerketa- eta irakaskuntza-ibilbide sendoa du, eta nazioarteko eragina duten aldizkarietan argitaratutako dozenaka argitalpenekin egiaztatuta dago. Ferreirak ardurak izan ditu unibertsitateko gobernuan, Errektoreorde eta Idazkari Nagusi gisa.



Joxerra Garzia ...

- Joxerra Garzia Garmendia (Legazpi, 1953). Filosofian eta Kazetaritzan lizentziatua, Bartzelonako UABn. Ikus-entzunezko komunikazioan doktore, EHUn, bertsolarien baliabide poetiko-erretorikoei buruzko tesiarekin. Bat-bateko bertsolaritza ahozko genero erretoriko gisa definitzen du, eta generoaren historia berriazteko proposamena egin du han-hemenka: Bertsolaritza, Etxepare Institutua (2020); Bat Bateko Bertsolaritza. Gakoak eta azterbideak (2001, Jon Sarasua eta Andoni Egañarekin elkarlanean). Oral Tradition aldizkariak bertsolaritzari eskainitako ale monografikoaren koordinatzaile (eta lau artikulu). Bertso programak sortu, zuzendu eta aurkeztu izan ditu Euskari Irratian eta ETBn (Hitzetik Hortzera). Jendaurrean Hizlari oratoria esku-liburuaren egile. Idazle gisa, ia genero guztiak landu ditu, eta hainbat literatur sari irabazi. Euskal Idazleen Elkarteko lehendakari izana (1993-97). Gipuzkoako Foru Aldundiak Abadia saria esleitu zion 2009an, euskararen alde egindako lanarengatik.




Junkal Gutierrez Mangado



Gaizka Insunza

Gaizka Insunza: Enpresa Zientzia eta Administrazioan Lizentziatua (EHU) eta Garapenari buruzko Ikaskeketan Doktorea (EHU). Gaur egun Enpresen Antolakuntza saileko irakasle atxikia da Bilboko Ingeniaritza Eskolan. Estatistika eta Ekonomia dira bere irakaskuntza arlo nagusiak eta jasangarritasunari lotutako Hezkuntza berrikuntza proiektuetan parte hartu du. Bere ikerketa lerro nagusia Kultur Industriak dira. Bere azken ikerketa lanak COVID-19ak euskal musikariengan izan duen eragina du aztergai. Bestalde, audience taldeko kide bezala (1999-gaur arte) hainbat diska kaleratu ditu. Horien artean John Agnello ekoizlearekin Hoboken-en (New Jersey, AEB) grabatutako "Big Affair" zein Habanan (Cuba) grabatutako "Isla" diskak aurkitzen dira, baita "Amerikanuak" zein "Jai Alai Blues" dokumentalen soinu banda. Beste hainbat proiektu musikaletan ere parte hartu du (Capsula, Young Talent Show, Ainara LeGardon, Txuma Murugarren, Markos Untzeta, The Riff Truckers, Gaizka Insunza).



Maite Larburu

Maite musikari polifazetiko da. Biolina musika klasikoaren ildotik ikasi ondoren, antzinako musika edo mugimendu historizistan espezializatu zen Amsterdameko kontserbatorioan "Nicanor Zabaleta" sariaren laguntzaz. Ondorioz, arlo horretako Europa erdikaldeko talde esanguratsuenekin dihardu lanean biolin jotzaile bezala. Hala ere, biolina ez da Maiteren kreatibitate lanabes bakarra eta hiru diska plazaratu kantugile-kompositore moduan. Horietako bi neighbor bikotearen izenpean eta beste bi bakarka: Hezurren Azpian (Musika Bulegoa saria 2020) eta KRAK (Musika Bulegoa saria 2022). Bere azken jardueren artean antzerkia ere txertatu da Larbururen agendan: AMUA antzezlan batetik (2020-21), eta berriki, HONDAMENDIA (2022-23) antzezlan-musikatua. Antzezlan honetan, Maitek zuzeneko musika eta antzerkigintza konbinatzen ditu. Berria zein Euskadi irratian kolaboratu izan du. 2002-2018 urteen artean Amsterdamen bizi izan zen. Ordutik, Hernanin bizi da.



Irene Larraza Aizpurua

Etxepare Euskal Institutua

Licenciada en Ciencias de la Comunicación y formada en gestión, Irene Larraza Aizpurua (Tolosa, 1970)

ha ocupado puestos de responsabilidad tanto en comunicación como en gestión cultural. Comenzó su carrera como redactora y locutora en Herri Irratia. De 1996 a 1999 fue responsable de Promoción y Difusión de Koldo Mitxelena Kulturunea, y durante ocho años responsable de Comunicación y Editorial de la empresa Syntorama. Entre 2008 y 2012 fue Coordinadora y Directora de Cultura en el Ayuntamiento de Tolosa. Desde 2012 forma parte del equipo del Instituto Vasco Etxepare, donde fue primero Responsable de Comunicación y dirigió después el área de Promoción y Difusión de la Cultura Vasca. Desde enero de 2018 es la directora general del Instituto Vasco Etxepare. En los últimos años ha liderado los proyectos estratégicos de la institución en materia de diplomacia cultural y ha representado a la cultura vasca en numerosos foros internacionales, como el European Culture Forum (Milan, 2017)



Kepa Matxain Iztueta

IKASKETAK: 2009-2013: Ikus-entzunezko komunikazioan gradua (HUHEZI, Mondragon Unibertsitatea)

2011-2012: Erasmus ikasketak, Baltic Film And Media School (Tallin, Estonia) · LAN-ESPERIENTZIA:

2015 - Gaur egun: HIRU DAMATXO IDEIA FAKTORIA (bazkidea) Ikus-entzunezkoen zuzendaritza, gidoigintza, produkzioa eta edizioa. 2015 - Gaur egun: ARGIA aldizkaria Kazetari kolaboratzailea

Kultura arloan. 2014 - 2015: EUSKADI IRRATIA Iritzi emaile kolaboratzailea "Arratsean" saioan. 2014 -

2015: BADOK EUSKAL MUSIKAREN ATARIA Kazetari kolaboratzailea. 2014 - 2015: GAROA KULTUR

LAB liburu-denda Liburu saltzailea eta komunikazio arduraduna. 2013 - 2014: GARABIDE ELKARTEA Koordinazio eta komunikazio arduraduna.



Miren Narbaiza Martiartu



Roberto Ordorika Ezkurdia

Ruper Ordorika (Oñati, Gipuzkoa, 1956ko) euskal abeslaria da, euskal musikari berritzaile eta nazioartekoenetakoa, hala rock eta pop musikan nola beste estilo batzuetan. Euskal kantagintzak eman duen bakarlaririk garrantzitsuenetakoa da. 1980ko hamarkadan Pott Bandaren sortzaileetako bat izan zen, Bernardo Atxaga, Joseba Sarrionandia, Manu Ertzilla, Joxemari Iturralde eta Jon Juaristirekin. Musika arloan herri kantaren tradizioa eta rock egilearen nortasuna batu ditu, bere erara. 1980. urteaz geroztik, bakarlari gisa hamaika disko sortzeaz gain, Euskal Herriko nahiz nazioarteko musikariekin lan

egin du maiz. Horrez gain, Hiru Truku taldea sortu zuen Joseba Tapia eta Bixente Martinez musikariekin.



Xabier Payá Ruíz

(Bilbo, 1982) Itzulpengintzan eta interpretazioan lizentziaduna. Hiru master ditu honako arloetan: Komunikazio multimedia, Europako Kultura Modernoak, eta Enpresa Zuzendaritza eta Administrazioa. Ingelesetik, frantsesetik eta gaztelaniatik euskaratu ditu hainbat lan: Desio izeneko tranbia, Peter Pan eta jaka eskarlata, Maite nuen, Herria, Bizitza amets... Artikulugintzan urte ugari jardundakoa da, bai irratian, bai prentsa idatzian: Euskadi Irratian, Bizkaie.biz agerkari digitalean, Gaur8-n eta Berria-n



Joseba Tapia ...

FORMAKUNTZA 1970-1979 Soinu kromatikoakasketak Migel Bikondoarekin 1979-1981 Trikitixa ikasketakAsteasun Eleuterio Tapiarekin LAN ESPERIENTZIA 1983 -1994 1984 -1994 2010 -2022 2021-2023 Migel Bikondoaren eskolan. Donostia, Gipuzkoa. Trikitixa irakasle Hernaniko Kontserbatorioan. Hernani, Gipuzkoa. Trikitixa eta solfeo irakasle Lasarteko Tirikitrauki eskolan. Lasarte, Gipuzkoa. Trikitixa irakasle Baionako Kontserbatorian. Baiona, Lapurdi. Trikitixa espezialitateko irakasle MASTER CLASS / STAGE / IKASTAROAK 2000 Saint SymphorienLyon 2000 ChicagoUniversity 2012 TolosakoConservatoire-Occitan CMDT TXAPELKETAK 1986 Euskal Herriko Trikitixa Txapelketa Nagusian Lehen Saria (Tapia eta Leturia) 1988 Euskal Herriko Trikitixa Txapelketa Nagusian Lehen Saria (Tapia eta Leturia) SARIAK 2022 Adarra Saria. Donostiako Udalak Donostia Kulturaren bitartez emana DISKOGRAFIA BAKARKA 1998 Apoaren edertasuna. (Gaztelupeko Hotsak) 1999 Quebec. (Gaztelupeko Hotsak) 2001 Agur Intxorta maite (Gaztelupeko Hotsak) 2006 Real Politik (Zakurraren Biolina) 2010 Eta tira eta tunba. (Zakurraren Biolina) 2013 Tximela Kapitainaren izarrak (Zakurraren Biolina) 2017 Besamotzak (Gaztelupeko Hotsak) 2018 Zorrotzako portuan aldarrika (Gaztelupeko Hotsak)



Kirmen Uribe



Jon Sarasua Maritzalar

Garabide elkarteak. Huhezi fakultatea, irakaslea eta kulturagilea

Komunikazio Zientzietan Doktorea da. Kazetaritza eta Soziologia ikasketetan ibilia. Bertsolaritzaren munduan oso gazte hasi zen eta urte askotan bertsolari gisa aritu ondoren, 2000 urtean utzi zion bertsolaritza publikoari. Mondragon Unibertsitatean aritu da hogeitaz urtez, arlo sozioekonomikoan eta kultura arloan. Herrigintzako hainbat alorretan taldeak sustatzen jardun du, Lanki, Garabide, Sorguneak eta Bagara bezalako egitasmoen sorreran. Autoeraketa, gizarte ekonomia eta hizkuntza arloak landu ditu egitasmo horietan, eta berauei lotutako nazioarteko zubiak. Hainbat liburu eta argitalpen egin da hizkuntza nahiz kultura arloan eta gai sozio-ekonomikoetan.
<http://bdb.bertsozale.eus/web/haitzondo/view/jon-sarasua>

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2023-05-31 ARTE	2023-06-28 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	59,00 EUR
Orokorra	-	84,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	71,00 EUR
Matrikula exentzioa	-	59,00 EUR
Ikastaroak guztiontzat	-	71,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	-	71,00 EUR
Elkar	-	71,00 EUR
Donostia Kultura	-	71,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa